



Zaintza emozionalerako eredu berritzaileak tokiko administrazioen ikuspegitik



Uzt. 16 - Uzt. 17 2024

Kod. P05-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 16 - Uzt. 17 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA





Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Azalpena

Tokiko erakundeen egitekoa da herritar guztien beharrak aztertu, eta behar horiei erantzutea. Lanketa horretatik abiatuta, herritarren ongizate emozionalari heltzeko premia ikusi du Azpeitiko Udalak, eta prebentzioan eragiteko konpromiso irmoa hartu du. Horren adibide dira azken urteotan Gizarte Zerbitzuen bidez martxan jarri dituen hainbat programa. Herritarren buru-osasunaz ari garenean, osasun fisikoaz, emozionalaz, kognitiboaz eta sozialaz ari gara, alderdi guztiek eragiten baitiote elkarri, eta guztiak baitira elkarren osagarri.

Prebentzioan eragitea bereziki garrantzitsua da, arazoari errotik heltzea ahalbidetzen duelako eta ondorengo esku-hartzeak edo kalteak gutxitzea eragiten duelako. Horrez gain, prebentzioa lantzeak berekin dakar ongizate emozionalaren gaia gizarteratzea eta arlo horri lotutako sentsibilizazio lan bat egitea. Prebentzioan eragiteko, ezinbestekoa da udaleko sailen arteko eta herriko beste hainbat eragileren arteko saretze-lan bat egitea; funtsean, zaintza-ekosistema bat sortzea. Alde horretatik, urrats berritzaileak egin ditu Azpeitiak.

Uda Ikastaro honetan herritarren zaintza emozionalaz zer ulertzen dugun, bizi-ziklo bakoitzean egiten den esku-hartzeaz, sailen arteko koordinazioaren eraginkortasunaz eta abar arituko gara.

Nerabezaroa garai ederra bezain gorabeheratsua dela jakitun, hezkuntza formaleko, hezkuntza ez-formaleko nahiz Gizarte Zerbitzuetako profesionalek egiten duten lehen eta bigarren mailako prebentzio-lana funtsezkoa da egoera batzuei aurre hartzeko eta bideratzeko. Arlo horretan Azpeitian egiten den lanaren berri izateaz gain, Bartzelonako Sant Joan de Déu ospitaleak martxan jarri duen "Henka" programa berritzailea ezagutzeko aukera izango dugu. Programa horrek nerabe eta gazteen ongizate emozionala sustatzen du, erresilientzia indartzen duten ekintzen bidez.

Helburuak

Azpeitiko Udalak ongizate emozionalean abian jarritako proiektuak ezagutaraztea.

Zaintza emozionalaren garrantzia nabarmentzea.

Prebentzioan eragitea.

Nerabeen ongizatean eragiteko esku-hartze tresnak eta estrategiak ematea.

Lankidetzak



Programa

2024-07-16

09:00 - 09:15	<p>“Erregistroa / Registro”Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena</p> <p>Leire Goenaga Uzkudun Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua</p> <hr/>
09:15 - 09:45	<p>“Azpeitiko Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea zaintza-ekosistemak egiten duen prebentzio emozionalean”</p> <p>Edurne Zubia Artabe Azpeitiko Udala - Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna</p> <hr/>
09:45 - 11:15	<p>“Prebentzio integrala, etapaz etapako esku-hartze berezituaren bidez “</p> <p>Janire Basurto González de Audicana Azpeitiko Udala - Azpeitiko esku-hartze goiztiarreko eta nerabe eta familientzako orientazio zerbitzuko psikologoa Luis Legorburu Elizegi Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udalak 18 urtetik gorako herritarrentzat eskaintzen duen doako psikologo-zerbitzuko arduraduna Ainhoa Aizpitarte Uzkudun Azpeitiko Udala - Etxeko arreata integraleko psikologoa.</p> <hr/>
11:15 - 11:45	<p>Atsedena</p> <hr/>
11:45 - 13:00	<p>Mahai ingurua: “Nola josten da elkarlana? Puntada bakoitza zuzen ematearen garrantziaz, adibide praktikoekin.”</p> <p>Luis Legorburu Elizegi Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udalak 18 urtetik gorako herritarrentzat eskaintzen duen doako psikologo-zerbitzuko arduraduna (Moderatzailea) Anartz Toledo Mendinueta Udaltzaingoa - Azpeitiko udaltzainburua Ana Errasti Muguruza Osakidetza - Azpeitiko lehen mailako arretako unitate burua Edurne Zubia Artabe Azpeitiko Udala - Udaleko Gizarte Zerbitzuetako arduraduna</p> <hr/>
13:00 - 13:15	<p>Itxiera</p> <p>Leire Goenaga Uzkudun Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua</p> <hr/>

2024-07-17

09:00 - 09:15	<p>Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena</p> <p>Leire Goenaga Uzkudun Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua</p> <hr/>
09:15 - 22:00	<p>“Nerabeak hezkuntza ez-formalean. Jaso eta erantzun.”</p> <p>Aloña Larrañaga Urdalleta Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Gazteria Teknikaria Ane Arenas Zabaleta Azpeitiko Udala - Gazteria Hezitzailea Alex Altolagirre Salegi Azpeitiko Udala - Gazteria Hezitzailea</p> <hr/>
10:00 - 10:45	<p>“Gizarte Zerbitzuak, nerabeen zerbitzura”</p> <p>Nagore Arroita Lopez Azpeitiko Udala - Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langilea</p> <hr/>
10:45 - 11:15	<p>Atsedena</p> <hr/>

11:15 - 12:00	<p>Mahai ingurua: “Ongizale emozionala ikastetxeen agendan?”</p> <p>Edurne Korta Uria Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Hezkuntza teknikaria (Moderatzailea)</p> <p>Ilazki Albizuri Arregi Urola BHI ikastola - DBHko orientatzailea</p> <p>Miriam Arrieta Lertxundi Ikasberri ikastola - DBHko orientatzailea</p> <p>Leire Aranburu Mendizabal Iraurgi ikastetxea - DBHko orientatzailea</p> <hr/>
12:00 - 12:45	<p>“Henka: Nerabeen ongizate emozionala sustatzeko Bartzelonako Sant Joan de Déu ospitaleak garatutako programa”</p> <p>Henka: un programa estatal de promoción del bienestar emocional en adolescentes del Hospital Sant Joan de Déu Barcelona</p> <p>Clara Serra Arumí Sant Joan de Déu ospitalea - Henka programako psikologoa</p> <hr/>
12:45 - 13:00	<p>Erika Olaizola Eizmendi eta Xanti Agirrezabala Zeberio. Mikroantzerkia.</p> <hr/>
13:00 - 13:15	<p>Sintesia</p> <hr/>
13:15 - 13:30	<p>Itxiera</p> <p>Leire Goenaga Uzkudun Azpeitiko Udala - Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako batzordeburua</p> <hr/>

Zuzendaritza



Leire Goenaga Uzkudun

AZPEITIKO UDALA

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua, finantzen espezialitatean (Mondragon Unibertsitatea). Lehen alkateordea eta Tokiko Gobernu Batzordeko kidea da, eta Gizarte Beharrak eta Parekidetasuna batzordeko lehendakaria. Ogasun, Barne Antolaketa eta Langileria batzordeko lehendakaria eta Azpeitia Berritzeneko kidea ere bada.

Irakasleak



Ainhoa Aizpitarte Uzkudun

Psikologian lizentziatua da (EHU) eta hainbat ikastaroren bidez jarraitu du pertsonen ongizatearekin lotutako bere ezagutzak eguneratzen. Biharko Gipuzkoa enpresan garatu du bere ibilbide profesionalaren zatirik handiena, batik bat adinekoekin. Hainbat udaletako eguneko zentroetan eta adinekoen egoitzatan lan egin du, eta, gaur egun, Azpeitiko Udalak eskaintzen duen etxeako laguntza integraleko psikologoa da.



Ilazki Albizuri Arregi

Psikologian lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea) da, Taldeko Psikoterapia Analitikoan masterra (OMIE) du, psikologo sanitarioa ere bada eta haurren eta nerabeen psikopatologia eta psikoterapiari buruzko hiru urteko ikastaroa egin zuen (Altxa Bilbo). Nerabeekin lan egin du bere ibilbide profesionalaren zatirik handienean: anorexia eta bulimiaren aurkako ACABE elkartean, Hirusta elkartearen nerabeen portaerak prebenitzeko programan, Santurtziko Udaleko drogomendekotasun sailean, Azpeitiko Udaleko familia esku-hartzean eta Donostiako Udalean haur eta nerabeen psikologo komunitario gisa. Gaur egun, Urola Ikastola BHIko DBHko orientatzailea da.



Alex Altolagirre Salegi

Gorputz eta kirol ekintzen sustapeneko ikasketak ditu, Acouturier Praktika Psikomotorrean espezializatu zen eta futbol entrenatzaile titulua ere bada. 2011tik Azpeitiko Gaztelekuko nerabeen hezitzailea da, eta bere eguneroko lanean, aurrez aurreko harremana du nerabeekin. Etengabeko prestakuntzan jarraitu du, nerabeen heziketarekin zerikusia duten hainbat ikastarotan parte hartuz.



Leire Aranburu Mendizabal


IRAURGI IKASTETXEA

Psikologian eta Psikopedagogian lizentziatua (EHU) da, eta prestakuntza osagarria du Gestalt psikoterapian, Gestalt haur psikoterapian eta VEC (lotura emocional kontzientea) eremuan. Aspaldiko urteetan, Iraurgi ikastetxeko orientatzailea da.



Ane Arenas Zabaleta

Gizarte Hezkuntzan diplomatua da eta Sexu Heziketako eta Familia Orientazioko hezitzaile titulua du. Esku-hartze sistemikoetan aditua da, eta Arte Eszenikoen ikasketak ere baditu. Nerabezeroari eta nerabezeroako beharrei buruzko ezagutza sakona du; izan ere, hainbat urte daramatza nerabeekin lanean: Azpeitiko Gaztelekuko hezitzailea da (Jauzika) eta herriko ikastetxeetan eskaintzen den sexu-heziketa programetako hezitzailea ere bai (Harremanak), haur, nerabe, familia eta irakasleekin egiten den esku-hartzean.




Miriam Arrieta Lertxundi

Psikologian, Psikopedagogian eta Lehen Hezkuntzako magisteritzako ikasketak eginak (EHUn). Hogeita lau urtez Azpeitiko ikastola Ikasberriko laguntza gelako irakasle gisa lan egin du DBHn, eta beste 10 urtez DBH eta DBHOko orientatzaile gisa. Bereziki, gazteekin elkarbizitzako esparruan eta orientazio pertsonal nahiz akademiko arloan egin du lanketa.



Nagore Arroita Lopez

Gizarte Lanean graduatua da eta coach ikasketak ditu. Besteak beste, gizarte-proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeari, suizidioa prebenitzeari, udal-zerbitzuei eta buruko gaixotasunei eta abarri buruzko ikastaro espezializatuak ere egin ditu. Gurutze Gorrian eta Bizkaiko Foru Aldundian hainbat urteko lan-esperientzia barneratu ostean, gaur egun gizarte-langile gisa aritzen da Azpeitiko Udalean.



Janire Basurto González de Audicana

Psikologian lizentziatua da eta osasun mentaleko praktika klinikoko masterra du. Prestakuntza osagarria du doluaren akonpainamenduan, haur traumaterapia sistemikoan, familia- eta gizarte-hezitzaileentzako prestakuntza sistemikoan, indarkaria matxistaren biktimei laguntzeko programetan eta gizarte esku-hartzean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Trebatu programan lan egin du hamahiru urtez, eta hango esku-hartze arduraduna izan da. Gaur egun, Azpeitiko Udalaren esku-hartze goiztiarreko programaz eta nerabe eta familientzako orientazio zerbitzuaz arduratzen da.



Ana Errasti Muguruza

OSAKIDETZA

Erizaintzan diplomatua (EHU) da, eta 37 urteko lan esperientzia du osasun arloan, horietatik gehienak lehen mailako arretan. Duela hamalau urtetik, Azpeitiko anbulatorioko lehen mailako arretako unitate burua da, Goierrri-Urola Garaia ESiko komunitariako erreferentea. Besteak beste, osasunaren ikuspegi komunitarioa sortzeko helburuz, koordinazioan aritzen da Azpeitiko Udaleko Gizarte Zerbitzuekin eta herriko gainerako eragileekin, zubiak sortu ahal izateko.




Edurne Korta Uria

Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari ikasketak ditu, eta Kultur kudeaketan masterra ere egin du. 2007tik tokiko administrazioetako langilea da, eta Gazteria, Kultura eta Hezkuntza sailetako teknikari izan da hainbat udaletan. 2021etik, Azpeitiko Udaleko Hezkuntza eta Prestakuntza Saileko arduraduna da.



Aloña Larrañaga Urdalleta

Lehen Mailako Heziketa Berezitasunean diplomatu zen, eta haur eta gazte aisialdiko begirale eta zuzendari titulua ditu. Azpeitiko Txiki Txoko ludotetako arduradun eta hezitzaile izandakoa, 2007tik Jauzika heziketa elkarteko arduraduna da. Urtez urte, haurren eta gazteen hezkuntzarekin lotutako hainbat prestakuntza-programatan parte hartu du, eta, horrela, bere ikuspegia zabaldu du eta hezkuntzaren eremuko erronkei aurre egiteko trebetasun berriak bereganatu ditu.



Luis Legorburu Elizegi

Psikologian lizentziatua (EHU), bikote eta familia terapiako masterra egin zuen, eta psikologo sanitarioa ere bada. Hogei urtetik gorako esperientzia du eraso eta tratu txar fisiko eta/edo psikologikoen biktimei laguntza psikologikoa emateko programetan, arrisku egoeran dauden adingabeekin familia esku-hartze programetan eta esku-hartze goiztiarreko prebentzio-programetan. Gaur egun, Azpeitiko Udalak 18 urtetik gorakoentzat eskaintzen duen doako psikologo zerbitzuko arduraduna da.




Anartz Toledo Mendinueta

Azpeitiko udaltzainburua da, eta lanpostuari lotutako hainbat arlotan trebatu da; besteak beste, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionentzako prestakuntza-ikastaroa, bitartekaritza polizialerako prestakuntza, Hiri seguruak: estrategia eta oinarritzko ekintzak ikastaroa eta Emakumeen aurkako indarkeria: detekzioa eta interbentzioa ikastaroak egin ditu.



Clara Serra Arumí

Graduada en Psicología y Màster en Investigación en Psicología Clínica y de la Salud (Universitat Autònoma de Barcelona). Su trabajo se centra en los factores protectores psicosociales, como la resiliencia, las estrategias de afrontamiento, el optimismo, y el apoyo social en diferentes colectivos, a fin de comprenderlos para promover la calidad de vida y el bienestar emocional de las personas. Asimismo, también ha estudiado el estrés, las experiencias traumáticas y los eventos vitales estresantes, para conocer cómo prevenir los problemas de salud mental que se pueden derivar de estos.



Edurne Zubia Artabe

Gizarte Lanean graduatua da, eta gizarte-gaiekin lotutako hainbat arlotako prestakuntza osagarria du, hala nola sexu-hezkuntzari, familia-plangintzari, droga-mendekotasunei eta adingabeekin, hurrekin eta adinekoekin egin beharreko esku-hartzeari buruzkoa, baita Gizarte Zerbitzuen zuzendaritzari eta kudeaketari buruzkoa ere. Gizarte-zerbitzuetan eta gizarte-beharretan azken urteetan eman diren aldaketei buruzko ezagutza zabala du, 1990etik Azpeitiko Gizarte Zerbitzuen arduradun teknikoa baita.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-07-16 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	61,00 EUR
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoien Elkargo Ofiziala	-	61,00 EUR
Donostia Kultura	-	61,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-07-16 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	61,00 EUR
Gipuzkoa / Bizkaia eta Arabako Psikologoien Elkargo Ofiziala	-	61,00 EUR
Donostia Kultura	-	61,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa